

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3048

492/2022 EBAZPENA, maiatzaren 8koa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M.^a Begoña Gómez Santos andrea Gainbegirale kargutik kendu den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Abenduaren 9ko 201/2010 Ebazpenaren bidez, M.^a Begoña Gómez Santos gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Ospitalean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.^a Begoña Gómez Santos andrea Gainbegirale kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek data honetako lanaldia bukatutakoan izango ditu ondorioak: 2022ko maiatzaren 8a.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuari honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2022ko maiatzaren 8a.

Bidasoko ESIko zuzendari-gerentea,

Ordezko gisa, zuzendari medikoa. Maiatzaren 17ko 1152/2022 Ebazpena, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko lanpostu hutsen, absentzien edo gaixotasunen ordezko araubidea ezartzen duena. 2022ko maiatzaren 31ko EHAA.

Bidasoko ESIko zuzendari medikoa,
MARIA EUGENIA ALKIZA EIZAGIRRE.